



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Taxi gidariak eta zentzu komuna

Taxi gidariena izan liteke gaur egungo gizartean nagusitzen den zentzu komunaren lagin fidagarrienetako bat. Alde batetik, lanak hartara beharturik, klase guztietako bezeroak eraman behar izaten dituztelako alde batetik bestera: negozio bidaletara doazen enpresariak, erosketak egitetik bueltan datozen herritar xumeak, hemengo paisaiatz eta gastronomiaz gozatzeko asmotan lurreratu berri diren turistak, parrandatik bueltan etxera ailegatu nahian edozer ordaintzeko prest dauden eta hitz egiteko gai ez diren giza hondakinak... Bestetik, normala den moduan, gidatzen ari diren bitartean isilik dagoen ikuslearen papera jokatzeko ematen dielako horrelako abantaila antzeko bat jendeak errealtateaz duen pertzepzioa baloratzeko orduan.

Gaueko azpimundua eguneko joan-etorriak bezainbeste ezagutzen duten ehun taxilari gela batean sartuko bagenitu eta aktualitateari buruzko galdetegi bat pasatuko bagenie, zinez ondorio interesgarriak aterako genituzke gizar-

tean gauza askoren inguruan dauzkagun iritziz konpartituei buruz. Beste kontu bat litzateke, esperimenduak iraun bitartean taximetroa martxan jarriko balute, akaso ondorio bakoitza garesti xamar ordainduko genukeelako.

Duela urte batzuk, Gasteiz kanpoaldean dagoen kontzertu areto batetik bueltan gentozela, goizaldeko ordu txikietan, filmetako dialogoak entzuteko ohitura zuen taxi gidari bat ezagutu genuen. Hiriaren erdialdera ailegatu bitartean, film klasikoetako elkarrizketak entzuten pasatu genuen denbora: guk film baten izenburua bota eta hark elkarrizketa jarri guri entzungai musika aparatuan. Surrealista xamarra zen egoera, dena esate aldera, baina eskertu genuen taxi gidariaren originaltasuna. Telefono zenbakia ere hartu genion beste baterako badaezpada, baina ez dugu berriro harekin elkartzeko plazerik izan zoritxarrez. Gau hartako bidaiaz, dena den, sarritan gogoratu gara geroztik.

Espainiar erreinuko hiriburuan, mehatxu jihadistari aurre egiteko taxi gidariak protagonista izango dituen

plan bat jarriko dute martxan hemen-dik gutxira. Susmagarria iruditzen zaie bezeroen bat tokatuz gero, poliziari jakinarazteko bidea erraztea izango du helburu Barne Ministerioak taxilariarentzat diseinatutako eskuliburuak. Izan ere, Bruselako atentatuaren egileetako batek, maleta lehergailuz beteta zeramala, taxi bat hartu omen zuen ekintza burutzeko lekura ailegatzeko. Taxi gidariak berak gerora poliziari jakinarazi zionez, bezeroak susmo txarra piztu zion hasieratik, maleta kapotean sartzeraz zihoanean ez ziolako baliza ukitzen utzi ere egin. Hori ikusirik, eta Madrilen egunero 16 mila taxi ibiltzen direla kontuan hartuta, atentatuak saihesteko bide eraginkorra iruditut bide zaie Barne Ministerioi ardura dunei jendea hemendik hara eramateaz arduratzen diren langileentzako jarraibide bat prestatzea.

Ez dakit zentzu komunak albistearen inguruan zer esango duen, taxilari bati galdetzea genduke onena. Niri boteprontoan "Taxi Driver" filma ekarri dit akordura. Robert de Niro du protagonista pelikula eta Vietnameko gerratik bueltan, depresioak eta insomnioak jotako Travis izeneko taxilari baten gorabeherak kontatzen ditu. Hiri prostituta, drogazale eta bestelako gaitzetatik libratzeko nahiak obsesionaturik, taxian alde batetik bestera pasatzen ditu gauak Travisen.

Film klasiko eta ezaguna izanagatik ere, ez dut ondo gogoan kontzertu hartatik bueltan, gure taxi gidari frikiari "Taxi Driver"-eko dialogoren bat ipintzeko eskatu genion edo ez. Despiste galanta gurea hala izan ez bazen, badiarelako zinemaren historiara pasatu diren esaldi pila bat pelikulan, egoera hartan entzuteko ezin aproposagoak. Behar bada taxi gidari zinefiloari ere ez zion grazia handirik egingo eskaerak, ez baitu gremioa leku onegian uzten, egia esan. Jakina delako ez dagoela taxi gidariekin erabat fidatzerik. Ezta gizartean nagusi den zentzu komunarekin ere. Baina hori beste pelikula bat da. Bitartean, kontuz ibili udan Madrileraz bazoazte zapa-tetan betuna ematearekin, lehergailu bati darion usaina oso antzekoa baita, diotenez. •



Robert de Niro «Taxi Driver» filmeko une batean.

GAUR8